2

Ibilbide motza

PR-A 51

MOJON DEL AVELLANO-rako IBILBIDEA

Seinaleztapena

Ibilbidearen jarraipena

Norabide aldaketa

Norabide okerra

ARABAKO MENDIALDEKO ibilbideen sarea

ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

FITXA TEKNIKOA

Distantzia	8,6 km
Denbora	3h 00’
Zailtasuna	Ertaina
Ibilbide mota	Zirkularra

Ibilbide polit honek pagadi zabal eta ederrak zeharkatzen ditu Mojón del Avellano izeneko mugarriaren parean (950 metroko altitudean) Trebiñorekiko mugara ailegatu arte. Bidean zehar, interpretazio-panelak daude. Ibilbide hau eta GR-38 ibilbidearen zati bat gainjartzen dira.

DESKRIBAPENA

LAGRÁN. Harraskatik hasita, bidaztiak baratzak zeharkatzen dituen iparralderanzko bidea hartu behar du. Bide horrek eskuinerako bihurgune handi bat dauka. Segidan, bidegurutze bat dago; bertan, gezi batek adierazten duen bezala, ezkerrerako bidea atzean utzi behar da (1) Ondoren, bide harritsutik jo behar da, eskuinaldean sortzen den beste adar bat atzean utzita (2) Bidea zuhaixka artetik iragaiten da, inguruko hariztia apurka- apurka trinkotuz doalarik.

Handik 7 minutura, herriko zabortegia gainditzen da, eta zorua buztintsu bihurtzen da. Baso-makinek, leku horretatik igarotzean, gurpil-arrasto sakonak uzten dituzte zoruan eta, ondorioz, bidea lokaztu ohi da.

Bidea ibar baten ibilerari jarraituz igotzen da bi alanbre-hesien artetik. 15 minutu ibili ondoren, bidea aldapa txiki baten hasieran belartsu bihurtzen da. Puntu horretan, ibilbidea erakusten duten bi kartel daude (3) Itzultzeko bidean, eskuineko alanbre-hesia zeharkatu beharko da. Bideak zuzen jarraitzen du Las Canteras izeneko sakana igotzen doan heinean, bitartean ezpelak dituen pagadi bat zeharkatzen duelarik.

Ordu erdi ibili ondoren, bidegurutze batera ailegatzen da. Horren parean, metalezko ataka berde bat dago (4) Eskuinaldean hasten den bidea Villaverde herrira doan PR-A 52 ibilbideari dagokio. Bidaztiak ezkerrera jo behar du bide nagusian zehar. Tarte horretan, bidea lau eta erosoa da eta berritzen ari den pagadi trinko baten gerizpean iragaiten da. Beste 10 minutu ibili ondoren, Nisabela izeneko urmaela dago, kartel batek seinalatzen duena. Bertara joaten dira basurdeak iraulkatzera (5)

Bidaztia ibarbidea igotzen doa bide nagusian zehar ezpelak dituen pagadi baten gerizpean. Ezkerrerako desbideratzeren bat atzean utzi ondoren, malda handitzen da. Sakanaren muturra gero eta hurbilago dago. Puntu horretan, bidebanatze bat dago, eta gezi bat duen kartel batek seinalatzen du eskuinera jo behar dela. Segidan, bidaztiak Torca Comunero (6) izeneko urmael txikia aurkituko du hobi karstiko baten ertzean. Metro gutxira,gezi batek adierazten du ezkerreko bidexka batetik jo behar dela. Urmaela gainditu ondoren, aurreko bidebanatzeko beste adarrera ailegatzen da.

Segidan, azken tartea igarotzen da ametzak dituen baso misto batean zehar. Gero, ezkerrerako beste gezi batek Mojón del Avellano izeneko mugarria non dagoen seinalatzen du (7) , hots, mendilerro erdi-erdian eta Trebiñorekiko mugan. Trebiñoko isurialdean lehen zegoen pagadia aspaldi desagertu zenez, orain panoramika zabal bat begiztatzen da puntu horretatik. Zeruertzaren hondoan Gasteizko Mendiak ikusten dira eta, horien atzean, Gorbeiako gailur biribildua ipar-mendebaldean eta Aizkorri mendi zorrotza ipar-ekialdean.

Lagranera itzultzeko, bidean atzera egin behar da kartelek (3) zenbakiarekin markatutako puntura ailegatu arte. Hesia gurutzatu ondoren, bide mehar bat hartu behar da. Bide horrek amezti gazte bat zeharkatuz ekialderantz darama, berritzen ari den larizio pinuko baso baterantz, hain zuzen ere. Bidean zehar, eroritako hainbat enbor saihestu behar da. Kartelek jarraitu beharreko ibilbidea adierazten dute. Pinudira heldutakoan, ibarreko bidexka utzi eta eskuinera jo behar da. Muino bat igo ondoren, berritzen ari den basoaren goialdetik lur irekira irteten da.

Aurrean mendia izanik hegoalderantz ibiltzen bada, otalur harritsu bat zeharkatzen da. Otalurra, txilarrez eta ipuruez beteta dagoena eta ametzak eta erkametzak ere sakabanaturik dituena, baso baten desagerpenaren lekuko ezin hobea dugu.

Puntu jakin batean, bidea Boca Ancha amildegi hesituaren ondotik iragaiten da (8). Segidan, bideak hesi bat zeharkatzen du eta, ondoren, herrirantz jaisten hasten da. Lursail oso harritsu bat igarotzean, bidea ia ikusezin egiten da eta, beraz, bidaztia bidean zehar aurkituko dituen kartelei jarraitu beharko zaie. Aurrerago, lasto-fardoz beterik dagoen zelai bat aurkituko du bidaztiak. Bertan, behi-azienda bazkatzen da eta abaro egiten du eta, horregatik, alde hori guztiz zapalduta eta lokaztuta dago. Tarterik txarrena modu batean edo bestean gainditua, hesi bat zeharkatu eta lur garbira irteten da 3 adarreko bidegurutze batean. Ezkerreko adarretik jaitsiz, ameztiak, larreak eta sororen bat zeharkatu ondoren, Lagran hiribildura ailegatzen da, Baxauriko errepidearen parean hain zuzen ere.

PROFILA



www.arabakomendialdea.eus

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7
01110 Santa Cruz de Campezo
(ARABA)
945405424

Eskualdeko turismo bulegoa
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa
01128 Antoñana
(ARABA)
945410577

arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA
CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava